

**AKTEA****BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**

(2026-07-30/07)

Bilkuraren izaera:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Data:	2026-07-30
Lekua:	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	09:01
Amaiera-ordua:	09:37

Bertaratuak**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)**Zinegotziak:**

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ainhua Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)

Bertaratu ez direnak:

Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)
Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

Kontuhartzailea: Miren Edurne Urrutia Uriarte

Idazkaria: Jurdana Uriarte Lejarraga

Aztergaiak

1. Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2026-06-25 OB (06)
2. Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
3. Administrazio orokorreko teknikarien bi lanpostu berri sortzeagatik eta lanpostuen zerrendako hiru lanpostu baloratzegatik Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteari kontu-hartzaileak egindako ingera etenarazlea altxatzea.
4. 2026.Urtea. Bermeoko Udaleko plantilla eta lanpostuen zerrenda eguneratzea onartzea.
5. Bermeoko irisgarritasun planaren eguneraketa onartzea.
6. J.A. Egia musika-eskolaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren aldaketa onartzea.
7. EH Bilduk, Guzanek eta EAJ-PNVk aurkeztutako UEMako mozioa onartzea.
8. EAJ-PNVk aurkeztutako ertzaintzaren aurkako jarrerak gaitzetsi eta bizikidetzaren aldeko mozioa onartzea.
9. 2026ko 4664-5791 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
10. Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: ekainaren 16, 23, 30 eta uztailak 14.
- 11.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaizta honakoa izan da:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723
Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2026-06-25 OB (06)

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=93&t=26>

Batzarkideek 2026ko ekainaren 25eko 06/2026 akta aho batez onartzea erabaki dute.

2.-BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=93&t=35>

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukatela.

3- ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN BI LANPOSTU BERRI SORTZEAGATIK ETA LANPOSTUEN ZERRENDako HIRU LANPOSTU BALORATZEAGATIK LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI KONTU-HARTZAILEAK EGINDAKO INGERA ETENARAZLEA ALTXATZEA.

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=93&t=60>

Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 93. artikulua arabera, puntu hau osoko bilkurako gai zerrendan diktamen barik sartu izanaren premia aho batez berretsi da.

XEDEA

Administrazio orokorreko teknikarien bi lanpostu berri sortzeagatik eta lanpostuen zerrendako hiru lanpostu baloratzeagatik Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteari kontu-hartzaileak egindako ingera etenarazlea altxatzea

AURREKARIAK

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Bakarra: Administrazio Orokorreko Teknikarien bi lanpostu sortu eta lanpostuen zerrendako hiru lanpostu baloratzea helburu duen espedientearen, Udaleko Kontu hartzaileak egindako txostenaren konklusioan hurrengoa zehazten du:

“Azaldutakoagatik, Kontu-hartzailatza honek INGERA ETENARAZLEA egiten du lanpostu zerrenda aldatzeko espedienteari. Bertan, funtsezko izapide gisa adierazten da ez dagoela Udalbatzak onartutako balorazio-eskulibururik edo irizpide teknikorik, espediente honetan aurkeztutako lanpostuen zerrendaren aldaketaren xede diren lanpostuen balorazioari babes teknikoa ematen dionik.

Ez betetzea 10/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan eta 117/2018 Foru Dekretuaren 12.3 artikuluan ezarritako eragozpen etengarrien kasuetan desadostasuna konpondu behar da, hala badagokio, 10/2003 Foru Arauaren 70.artikuluan (Alkateari dagokio kasu honetan 10/2003 Foru Arauaren 70.4 artikulua arabera) eta 117/2018 Foru Dekretuaren 15.artikuluan aurreikusitako prozedurak erabiliz.”

ARGUDIOAK

Bakarra: Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) eta 70.bis artikuluetan jasotako Toki-Erakundeen auto-antolaketaarako ahalak ahalmena ematen dio Alkatetzat honi udal zerbitzu publikoen funtzionamendu egoki, eraginkor eta etengabekorako beharrezkoak diren egiturazko neurriak eta langileen antolamendurako neurriak hartzeko.

Nahiz eta Udal Kontu-hartzailatzak Udalbatzaren Osoko Bilkurak formalki, modu independentean onartutako Lanpostuak Baloratzeko Eskuliburuaren komenigarritasun arautzailea adierazten duen, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginean (TOALTB), eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginak (EPOETB) ez dute figura hori antolamendua aldatzeko espediente bereziak izapidatzeko baliozkotasun-baldintza gisa ezartzen ezta baldintza *sine qua non* edo nahitaezko baldintzatzat.

Barne-kontrolako organoak adierazitako arbitrariotasun-arriskuaren aurrean, kontratatutako PKF ATTEST enpresak azterketa tekniko batean oinarritu du espedientearen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada: Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Azterketa horrek haztapen-faktore objektiboak, homogeneousak eta tipifikatuak (hala nola zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna eta nekagarritasuna) aplikatzen ditu, eta, horrela, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipio konstituzionalak errespetatzen direla bermatzen du, ukitutako hiru lanpostuen ordainsari osagarriak zehaztean.

7/1985 Legearen 22.2.i) artikulua Udalbatzaren Osoko Bilkurari Lanpostuen Zerrenda (LPZ) onartzeko ematen dion eskumen eksklusiboa ez du inola ere urratzen edo indargabetzen ebazpen honek; izan ere, hiru lanpostu horien balorazio tekniko eta ekonomikoa nahitaez eta modu loteslean sartuko da LPZ aldatzeko espedientean, zeina kide anitzeko organo horrek eztabaidatu, jendaurrean jarri eta behin betiko onartuko duen.

Kontuan izanda hiru lanpostu horien balorazioa egitera behartzen duen epai judizial bat dagoenez (264/2025, 2025eko abenduaren 18koa), premiaz ebatzi behar dela hiru lanpostu espezifiko horien antolamendu- eta ordainsari-hutsunea. Izan ere, eskuliburu orokor bat izapidetu beharrak, epaia azkar betetzea galaraziko luke, lanpostu horien geldialdi mugagabea sortuz.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

BAKARRA: Administrazio orokorreko teknikarien bi lanpostu berri sortzeagatik eta lanpostuen zerrendako hiru lanpostu baloratzeagatik Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteari kontu-hartzaileak egindako ingera etenarazlea altxatzea

4.-2026.URTEA. BERMEOKO UDALEKO PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN EGUNERATZEA ONARTZEA.

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=93&t=278>



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Idazkariak ohartu du espedientean aurreko puntuan landutako kontuhartzailearen ingera etenarazlea dagoela eta Langileria teknikariaren eta langileriako administrazio orokorreko teknikariaren kontrako txostenak daudela.

Xedea

Bermeoko Udal plantilla eta Lanpostuen Zerrenda eguneratzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Antolakunde batean, faktore nagusi eta ezinbestekoa dira giza baliabideak kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko eta ezarritako helburuak lortzeko, pertsonak baitira erakundearen kapital nagusia. Hortaz, argi dago, administrazioetan giza-baliabideen kudeaketa egokia burutzea funtsezkoa dela, horrela lor baitezakegu administrazio eraginkorra eta efizientea izatea, hau da, gaitasuna duena herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.

Gizartea etengabeko eraldaketa batean murgilduta dabil, eta udalak dira herritarrengan hurbilen dauden antolakundeak, beraz, ezinbestekoa da horien antolakuntzak herritarren beharrianetara egokitzea, giza baliabideen kudeaketa eraginkor baten bidez.

Lanpostuen zerrendak langileak egoki planifikatzea ahalbidetzen du, lanpostu bakoitzak helburu argi bat duela eta udalaren helburu estrategikoekin bat datorrela ziurtatuz. Horrek eskura dauden giza baliabideak hobeto antolatzen eta erabiltzen laguntzen du.

Bigarrena: Ezinbestekoa da, lanpostuen zerrendan dagozkion eguneratzeak gauzatzea, lanpostuen zerrenda baita erakundearen antolamendua egituratzeko erabili beharreko tresna, giza baliabideen arrazionalizazio eta optimizazioa lortu ahal izateko.

Hirugarrena: Langileria teknikariaren eta langileriako administrazio orokorreko teknikariaren irizpena kontrakoa da, lanpostu berriak sortzeko nahitaezkoa baita alde zuzeneko balorazioa egitea, Toki Administrazioko Funtzionarioen Ordainsarien Araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Balorazio hori egiteko, lanpostu bakoitzaren eginkizunekin,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada: Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



zereginekin eta inguruabar bereziekin zerikusia duten elementu ebaluagarriak objektiboki zehaztu behar dira.

Laugarrena: Bermeoko Udalean, lanpostuen azken balorazioa 1992an egin zen. Harrezkero Udal erakundean aldaketa sakonak jazo dira, bai barne-egituran baita lanpostuen funtzio eta erantzukizunetan, errealitatea sozial eta ekonomikoarekin bat.

Bermeoko Udaleko lanpostuen balorazioa egin behar da, Toki –Administrazioko funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 3. eta 4. Artikuluak finkatzen dituen irizpide objektiboak aplikatu ondoren.

Objektibotasun hau, Konstituzio Espainiarraren 103.1 artikulua agintzen du Administrazioaren jardunean. Lanpostuen balorazioa burutzeko, objektiboak, efizienteak eta eraginkorrak diren irizpide eta prozeduren erabilera beharrezkoa da eta lanpostuen arteko konparaketaren bidez, faktore objektibo desberdinen arabera, lanpostu bakoitzari puntuak esleitzen zaizkio. Baina objektibotasun hori ziurtatzeko modu bakarra, balorazio orokor bat da (edo talde homogeneoan artekoa), faktoreak eta puntuak bere osotasunean objektiboki esleitu lirateke eta.

Bestetik, 5/2015 Lege Errege Dekretuaren 14.d) artikulua ordainsariak jasotzeko enplegatu publikoek duten eskubidea aurreikusten da eta balorazio partzial bat adostean (3 lanposturena kasu honetan, zeinak ez diren talde homogeneo batenak) ordainsarien eremuan errespetatu beharreko berdintasun doktrinaren urraketa suposatuz.

Horrenbestez, erabilitako metodologiak objektibotasuna alde batera utzi eta enplegatu publikoen arteko ordainsarien berdintasun tratamenduaren urraketa suposa dezakeenez, Langileriako teknikariaren eta Langileria Saileko Administrazio Orokorreko teknikariaren irizpena kontrakoa da, 3 lanpostu horien balorazio partziala beharrean, Bermeoko Udal langileen balorazio orokorra burutu beharko litzatekeelako.

Argudioak

Lehenengoa: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua ezartzen du:



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



“ 74. artikulua. Lanpostuak antolatzea.

Administrazio Publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira.”

Bigarrena: Apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 90.2. artikulua xedatzen du Tokiko Entitateek haien erakundeko lanpostuen zerrenda egin beharko dutela, funtzio publikoaren inguruko oinarritzko legediak diotenaren arabera, eta Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta berauen eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua dio LPZak funtzio publikoaren oinarritzko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz garatu beharko direla.

Hirugarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua lanpostuen zerrendak arautzen ditu:

“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.

1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketaerako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723
Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



2.– Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

3.– Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.

(...)

6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotresnak.

Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.

7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.”

Halaber, 46. artikuluan lanpostuen zerrendaren edukia xedatzen da:

“46. artikulua.– Lanpostu-zerrenden edukia.

1.– Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:

a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.

b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.

c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.

d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.

e) Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.

f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.

g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.

h) Dedikazio-araubidea.

i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.

2.– Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.

3.– Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeke prozesuen ondorioz, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren.”

Laugarrena: Lan-195/26 jg erreferentziadun Langileria teknikariaren txostenean langileria sailean proposatutako aldaketak justifikatu dira.

Langileria saila sortu zen langileen administraziorako eta kudeaketarako, langileekin lotutako zeregin administratibo eta operatiboetara bideratuta, baina beharrezkotzat jo da giza baliabideen kudeaketa ere barneratzea.

Ondorioz, administrazio orokorreko teknikari biren plazak/lanpostuak sortzea proposatzen da. (I. eta II. Eranskinak)

Kodea: 1107501

Saila: Langileria saila

Lanpostua: Administrazio Orokorreko Teknikaria

Dotazioa: 2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Eskala: Administrazio Orokorra

Izaera: Funtzionarioa

Azpitaldea: A1

Maila: 24

Berariazko osagarria: 25.522,83

Irakurmena eta idazmena: C2

Entzumena eta mintzamena: C2

Derrigortasun data: 2026-07-30

Seigarrena: Denboraren joanean, langileria sailean gauzatzen den lana hazi egin da neurri handi batean, eta administrazio gaien konplexutasunak eremu juridikoa betea edukitzeko beharra eragin du. Ondorioz, langileria saileko erdi mailako teknikariaren plaza/lanpostua birmoldatzea ere proposatzen da.

Erdi mailako teknikariaren lanpostua birmoldatuta, haren eginkizunak eguneratuko dira, zerbitzuaren egungo errealitatera egokitzeko. Horrez gain, A2 bati ez dagozkion funtzioak kenduko dira, eta funtzio horiek administrazio orokorreko teknikariei bideratuko zaizkie. Eginkizun teknikoak, kudeaketakoak eta izapidetzekoak esleituko zaizkio. (III.eranskina).

Zazpigarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 187.artikuluak Hizkuntza-eskakizunak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak arautzen ditu, eta 5. atalean honako hau xedatzen du:

“5.– Euskal administrazio publikoetako eta haien instituzio eta organismoetako lanpostu guztiek, unean uneko egoeraren arabera edo aldi baterakoak barne, dagokien hizkuntza-eskakizuna izango dute esleituta; horretarako, kontuan izango da zeintzuk diren lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta komunikazio-premiak, eta zer hizkuntza-trebetasun eska daitezkeen premia horiek betetzeko.”

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 22. artikulua arabera, hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa.

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera nahitaez adierazi beharko da lanpostuen zerrendan.

1. 2026ko martxoaren 27an, Euskera saileko teknikari-trebatzaileak Administrazio Orokorreko teknikari lanpostuen hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun datai buruzko txostena egin du, honako hau proposatuz:

“LEHENENGOA: Bermeoko Udalak plantila organikoan sortuko dituen Administrazio orokorreko teknikari lanpostu biei C2 C2 ezartzea, bai irakurmenean eta idazmenean, zein entzumenean eta mintzamenen, eta Osoko Bilkurak lanpostu horiek lanpostuen zerrendan sartzea erabakiko duen eguneko derrigortasun data ezartzea.

BIGARRENA: Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari proposamen hau helaraztea eta txostena eskatzea.”

2026ko martxoaren 30ean, Bermeoko Udalak, Kultura eta Hizkuntza politikako Herri Administrazioetan Hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzara lanpostuetan ezarri beharreko hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun daten gaineko nahitaezko txostena eskatu ditu.

2026ko apirilaren 8ko datarekin, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak proposamenaren aldeko txostena eman du.

Zortzigarrena: 2023ko maiatzaren 29an, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5 zk.ko Epaitegiak Prozedura Arrunt bidez 141/2023 auzi errekurtsioa izapidetu zuen, hiru langilek egindako erreklamazioei buruzkoa hain zuzen ere.

2025eko abenduaren 18an, prozedura horren 264/2025 epaia eman zen, eta epai horren epaitza izan zen Bermeoko Udala kondenatzea "errekurtsogileen lanpostuen balorazioa aldatzera eta hura amaitzera, Udalaren autodeterminazio-marjinaren barruan egoki iritzitako moduan". Ondorioz, Udala behartuta dago hiru errekurtsogileen lanpostuak baloratzeko hasitako prozesua amaitzera.

2014an, Udal honek, kanpoko kontratazioaren bidez, antolaketa aztertzeke prozesu bat hasi zuen, udal-egitura berrikustea, lanpostuak deskribatzea eta lanpostuen balorazioa gauzatzeko. Lan horiek PKF ATTEST enpresak egin zituen. Enpresak dokumentazio tekniko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



garrantzitsua egin zuen, eta sakon ezagutu zituen udal-antolamendua, barne-funtzionamendua eta lanpostuen ezaugarri espezifikoak. Prozesua ez zen amaitu, baina enpresa esleipendunak informazio eta analisi kopuru esanguratsua sortu zuen, eta oraindik ere baliagarria eta erabilgarria da azterlana eguneratzeko eta amaitzeko.

PKF ATTEST enpresak hiru lanpostuen balorazioa burutu du eta honako proposamen hau luzatu dio Bermeoko Udalari:

1. Lanpostua: Antolakuntzako teknikaria (Berrikuntza, gobernu irekia eta herritarren arreta saileko teknikaria)

Kodea: **1109501**

Azpitaldea: **A1**

Destino osagarria: **25**

Berariazko osagarria: **36.988,60 €**

2. Lanpostua: Informatikako teknikaria

Kodea: **1109502**

Azpitaldea: **A1**

Destino osagarria: **24**

Berariazko osagarria: **36.063,88 €**

3. Lanpostua: Zaharren egoitzako gizarte langilea eta etxez etxeko zerbitzuko arduraduna

Kodea: **3010402**

Azpitaldea: **A2**

Destino osagarria: **22**

Berariazko osagarria: **34.214,45 €**

Bederatzigarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen (TREBEP) urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. eta 37.1.c)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723
Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



artikuluetan xedatutakoa betez, 2026ko ekainaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Negoziazio Mahaian langileria saileko berrantolaketa negoziatu da eta aho batez onartu da.

Halaber, 2026ko ekainaren 30ean izandako Negoziazio Mahaian PKF ATTEST enpresak aurkeztutako hiru lanpostuen balorazioa negoziatu da.

Bermeoko Udal plantilla eta Lanpostuen Zerrenda eguneratzea aho batez onartu da, langileria saileko Administrazio Orokorreko teknikari plaza/lanpostu bi sortuz eta hiru lanpostuen balorazioa ezarritz.

Hamargarrena: Bermeoko Udaleko bitarteko Idazkari nagusiak, Lanpostuen zerrenda eguneratzeko egindako jardunbidearen inguruko txostena eman du, Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onesten duenaren 173. Artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Hamaikagarrena: Bermeoko Udaleko Kontuhartzaileak, 6/2026ko txostena egin du, *“Bermeoko Udal lanpostuen zerrenda eguneratzea. Lanpostu berriak sortzea eta lanpostuen zerrendako 3 lanposturi balorazioa onartzea”* duena objektutzat.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren konklusioan hurrengoa zehazten du:

“Azaldutakoagatik, Kontu-hartzailetza honek INGERA ETENARAZLEA egiten du lanpostu zerrenda aldatzeko espedienteari. Bertan, funtsezko izapide gisa adierazten da ez dagoela Udalbatzak onartutako balorazio-eskulibururik edo irizpide teknikorik, espediente honetan aurkeztutako lanpostuen zerrendaren aldatetaren xede diren lanpostuen balorazioari babes teknikoa ematen dionik.

Ez betetzea 10/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan eta 117/2018 Foru Dekretuaren 12.3 artikuluan ezarritako eragozpen etengarrien kasuetan desadostasuna konpondu behar da, hala badagokio, 10/2003 Foru Arauaren 70.artikuluan (Alkateari dagokio kasu honetan 10/2003 Foru Arauaren 70.4 artikuluan arabera) eta 117/2018 Foru Dekretuaren 15.artikuluan aurreikusitako prozedurak erabiliz.”



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Hamabigarrena: 2026/5522 zk. Alkaketza Dekretuaren bidez, Bermeoko Udaleko Alkatetzak hurrengo erabaki du, Dekretuan bertan azaltzen diren arrazoiengatik:

“Erabakia:

Goian aipatutako guztia kontuan izanda, honako hau erabaki dut:

Bakarra: Administrazio Orokorreko Teknikarien bi lanpostu berri sortzeagatik eta lanpostuen zerrendako hiru lanpostu baloratzeagatik Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteari Kontu-hartzaileak egindako ingera etenarazlea altxatzea.”

Hamargarrena: Lanpostuen Zerrenda onartzeko ahalmena Osoko Bilkurari dagokio, Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legearen 22.2.i) artikularekin bat.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udal lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek jasotzea onartzea:

1. Administrazio orokorreko teknikari lanpostu bi udal egituraren sortzea onartzea, plantillan eta lanpostuen zerrendan plazak eta lanpostuak sortuz. (I. eta II. Eranskinak):

Kodea: 1107501

Saila: Langileria saila

Lanpostua: Administrazio Orokorreko Teknikaria

Dotazioa: 2

Eskala: Administrazio Orokorra

Izaera: Funtzionarioa

Azpitaldea: A1

Maila: 24

Berariazko osagarria: 25.522,83

Irakurmena eta idazmena: C2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Entzumena eta mintzamena: C2

Derrigortasun data: 2026-07-30

2. Langileria saileko erdi mailako teknikariaren plaza/lanpostua birmoldatzea eginkizunak eguneratuz. (III.eranskina).

BIGARRENA: 2025eko abenduaren 18ko 264/2025 epaia betez, hiru errekurtsogileen lanpostuak baloratzeko PKF ATTEST enpresak aurkeztutako proposamena onartzea:

Lanpostua	Azpitaldea	Destino maila	Berariazko osag.
Antolakuntzako teknikaria	A1	25	36.988,60 €
Informatikako teknikaria	A1	24	36.063,88 €
ZE gizarte langilea eta etxez etxeko zerbitzuko arduraduna	A2	22	34.214,45 €

HIRUGARRENA: Aldaketa horien ondorioz, Bermeoko Udaleko plantilla eta lanpostuen zerrenda IV eranskinean jasotzen den moduan onartzea.

LAUGARRENA: Lanpostuen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea Langileria Sailari.

I. ERANSKINA

Administrazio Orokorreko Teknikaria

Saila: Langileria

Dotazioa: 1

LANPOSTUAREN MISIOA

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Korporazioak giza baliabideen eta antolamenduaren arloan dituen estrategiak, politikak eta prozedurak kudeatzea, programatzea, ezartzea eta zehaztea, gobernu-organismoek emandako jarraibideekin, legezko arauekin eta kudeaketa publikoaren efikazia eta efizientzia irizpideekin bat etorriz, bolumenari eta egiturari dagokienez plantilla egokia, arrazoitua eta herritarraren zerbitzura dagoena lortzeko.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN

FUNTZIO OROKORRAK

- Izaera administratibodun goi-mailako kudeaketa, azterketa eta proposamenak, txostenak egitea, aholkularitza juridikoa, eta ebazpen-proposamenak egitea.
- Bere kargura dauden langileen lana zuzendu eta gainbegiratzea, administrazio-lanak kalitatez eta eraginkortasunez egin daitezen.
- Zerbitzua kudeatzea
- Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak egitea
- Aholkularitza juridikoa bere eskumeneko gaietan
- Ebazpen-proposamena duten espedienteak izapidetzea
- Bere eskumeneko eremuan azterlanak egitea
- Bereziki konplexuak diren edo erantzukizun berezia behar duten administrazio-lanak definitzea eta egitea.
- Sailaren lana koordinatzea, nagusiaren argibideen arabera, eta lana banatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzea.
- Beste sailekin lankidetzan aritzea beharrezkoa denean.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN

FUNTZIO ESPEZIFIKOAK (Langileria saila)

1. Sailaren koordinazioa eta ardura, barne eta kanpo harremanetan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



2. Langileria saileko langileen lan administratiboa gainbegiratzea eta egiaztatzea, lege- eta aurrekontu-araudia bete dezan.
3. Hautaketaren, ordainsariaren, prestakuntzaren eta karreraren arloko funtzioaren alderdi teknikoak ezartzea, diseinatzea eta kudeatzea, plantilla egokia eta kalitatezkoa izateko.
4. Korporazioari aztertu, lagundu eta aholkuak ematea langileen kudeaketan aipatzen diren gai juridikoetan, bai funtzio publikokoetan, bai lan-zuzenbidekoetan, arlo horretako egintza eta erabaki guztien legezkotasuna errespetatuz.
5. Udal-langileei eta haien legezko ordezkariiei eta ordezkari sindikalei arreta ematea, lan-harreman kooperatiboak izateko, eta antolamendu-gatazkak eta -eztabaidak negoziatuta konpontzea bultzatzeko.
6. Langileen antolaketari buruzko alderdiak eta gorabeherak kudeatzea, udal-zerbitzu publikoen ohiko funtzionamendua zainduz.
7. Gobernu-taldeari laguntzea kudeaketa-helburuak eta zerbitzuak hobetzeko proiektuak formulatzen, bai eta horien funtzionamendua ebaluatzen ere, herritarren itxaropenei erantzunez.
8. Bere kargura dauden langileen lana gainbegiratzea eta koordinatzea: Administrari laguntzaileen jarduerak gainbegiratzea eta koordinatzea, eta lan-kargaren banaketa zuzena eta zereginak eraginkortasunez egitea ziurtatzea.
9. Aurrekontu-plangintza eta -kontrola: Langile-gastuen aurrekontua egitea eta gainbegiratzea, kudeaketa arduratsu eta gardena bermatuz.
10. Langileen prestakuntza, garapen profesionala eta ongizatea sustatuko duten giza baliabideen politikak diseinatzea eta ezartzea.
11. Aholkularitza teknikoak: Aholkularitza teknikoak udalaren erabaki estrategikoak hartzen lagunduz.
12. Proiektuen kudeaketa: Langileria sailean etengabeko hobekuntzako proiektuen buru izatea, prozesuak optimizatuz eta berrikuntza sustatuz.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidada:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



II. ERANSKINA**Administrazio Orokorreko Teknikaria****Saila: Langileria****Dotazioa: 1****LANPOSTUAREN MISIOA**

Korporazioak giza baliabideen eta antolamenduaren arloan dituen estrategiak, politikak eta prozedurak kudeatzea, programatzea, ezartzea eta zehaztea, gobernu-organismoek emandako jarraibideekin, legezko arauekin eta kudeaketa publikoaren efikazia eta efizientzia irizpideekin bat etorriz, bolumenari eta egiturari dagokienez plantilla egokia, arrazoitua eta herritarraren zerbitzura dagoena lortzeko.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN**FUNTZIO OROKORRAK**

- Izaera administratibodun goi-mailako kudeaketa, azterketa eta proposamenak, txostenak egitea, aholkularitza juridikoa, eta ebazpen-proposamenak egitea.
- Bere kargura dauden langileen lana zuzendu eta gainbegiratzea, administrazio-lanak kalitatez eta eraginkortasunez egin daitezen.
- Zerbitzua kudeatzea
- Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak egitea
- Aholkularitza juridikoa bere eskumeneko gaitan
- Ebazpen-proposamena duten espedienteak izapidetzea
- Bere eskumeneko eremuan azterlanak egitea
- Bereziki konplexuak diren edo erantzukizun berezia behar duten administrazio-lanak definitzea eta egitea.

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

- Sailaren lana koordinatzea, nagusiaren argibideen arabera, eta lana banatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzea.
- Beste sailekin lankidetzan aritzea beharrezkoa denean.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN

FUNTZIO ESPEZIFIKOAK (Langileria saila)

1. Hautaketaren, ordainsariaren, prestakuntzaren eta karreraren arloko funtzioaren alderdi teknikoak ezartzea, diseinatzea eta kudeatzea, plantilla egokia eta kalitatezkoa izateko.
2. Korporazioari aztertu, lagundu eta aholkuak ematea langileen kudeaketan aipatzen diren gai juridikoetan, bai funtzio publikokoetan, bai lan-zuzenbidekoetan, arlo horretako egintza eta erabaki guztien legezkotasuna errespetatuz.
3. Udal-langileei eta haien legezko ordezkariak eta ordezkari sindikalei arreta ematea, lan-harreman kooperatiboak izateko, eta antolamendu-gatazkak eta -eztabaidak negoziatuta konpontzea bultzatzeko.
4. Langileen antolaketari buruzko alderdiak eta gorabeherak kudeatzea, udal-zerbitzu publikoen ohiko funtzionamendua zainduz.
5. Gobernu-taldeari laguntzea kudeaketa-helburuak eta zerbitzuak hobetzeko proiektuak formulatzen, bai eta horien funtzionamendua ebaluatzen ere, herritarren itxaropenei erantzunez.
6. Bere kargura dauden langileen lana gainbegiratzea eta koordinatzea: Administrari laguntzaileen jarduerak gainbegiratzea eta koordinatzea, eta lan-kargaren banaketa zuzena eta zereginak eraginkortasunez egitea ziurtatzea.
7. Aurrekontu-plangintza eta -kontrola: Langile-gastuen aurrekontua egitea eta gainbegiratzea, kudeaketa arduratsu eta gardena bermatuz.
8. Langileen prestakuntza, garapen profesionala eta ongizatea sustatuko duten giza baliabideen politikak diseinatzea eta ezartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Data: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



9. Aholkularitza teknikoak: Aholkularitza teknikoak udalaren erabaki estrategikoak hartzen lagunduz.

10. Proiektuen kudeaketa: Langileria sailean etengabeko hobekuntzako proiektuen buru izatea, prozesuak optimizatuz eta berrikuntza sustatuz.

III. ERANSKINA

Erdi mailako teknikaria

Saila: Langileria

Dotazioa: 1

LANPOSTUAREN MISIOA

Korporazioak giza baliabideen arloan dituen prozedurak kudeatu eta gauzatzen laguntzea, arduradunaren jarraibideekin eta indarrean dauden lege-arauekin bat etorritik, langileak planifikatzeko eta antolatzekeo tresnek behar bezala funtziona dezaten.

ERDI MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTUA

FUNTZIO OROKORRAK

- Erdi mailako kategoriari dagokion kudeaketa, azterketa eta proposamenak, txostenak egitea, eta ebazpen-proposamenak egitea.
- Bere kargura dauden langileen lana zuzendu eta gainbegiratzea, administrazio-lanak kalitatez eta eraginkortasunez egin daitezen.
- Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak egitea
- Aholkularitza teknikoak bere eskumeneko gaietan
- Ebazpen-proposamena duten espedienteak izapidetzen laguntzea
- Bere eskumeneko eremuan azterlanak egitea

CSV: 07EA0017057300W0D6M6O9J3F7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 04/08/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/08/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/08/2026 09:22:54

DOCUMENTO: 20261508723

Fecha: 04/08/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Sailaren lana koordinatzea, nagusiaren argibideen arabera, eta lana banatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzea.
- Beste sailekin lankidetzan aritzea beharrezkoa denean.

ERDI MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN

FUNTZIO ESPEZIFIKOAK (Langileria saila)

- Hautaketaren eta karreraren arloko funtzioaren alderdi teknikoak ezartzen, diseinatzeko eta kudeatzeko laguntzea, plantilla egokia eta kalitatezkoa izateko.
- Erakundeko langileen prestakuntza-beharrak aztertzea, pertsonari eta lanpostuari egokitutako prestakuntza-planak diseinatzea eta antolatzea, lortutako emaitzen jarraipen arduratsua eginez langileen motibazioa hobetzeko.
 - Langileen prestakuntza-beharrak hautematea eta aztertzea, antolamendu-beharretara egokitzeko.
 - Banakako beharretara, lanbide-profilera eta lanpostura egokitutako prestakuntza-plana diseinatzea eta gauzatzea.
 - Prestakuntza-planaren eta egindako prestakuntza-jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
 - Udaleko langileei prestakuntza-jardueren eskaintza zabaltzea, sustatzea eta jakinaraztea.
- Udal langileen arreta: udal langileentzako lehen harreman-puntu gisa jardungo du, eta erantzun profesionala, arina eta indarreko araudiari egokitua bermatuko du.
 - Barne-araudiari, administrazio-prozedurei eta izapidetze-zirkuituei buruzko oinarritzko informazioa eta orientazioa ematea.
 - Gatazka edo desadostasun arinetan hasierako bitartekaritza egitea, elkarriketa bidezko konponbideak sustatuz eta jardun-eremua gainditzeko duten kasuak bideratuz.
 - Langileak sartzeko eta laguntzeko prozesuei laguntzea, eskubideei, betebeharrei, barne-prozedurei eta eskura dauden baliabideei buruzko informazioa emanez.
 - Barne-komunikazioan laguntzea, udal-langileentzat garrantzitsuak diren abisuak, jarraibideak, araudia eta dokumentazioa zabalduz.



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0017057300W0D6M6O9J3F7

Sinadurea eta data

